

# B

BARREN

TOKIKOM



# inauterietako TXOKOAK

HH eta LH 1-2  
(2-8 urte)

Otsailak 16, 17 eta 18

9:00etatik 13:00etara, elzako ordupean (holagoan plazan)

Izen-ematea:

[www.elgoibarhoizarra.eus](http://www.elgoibarhoizarra.eus) webgunean edo bulegoan.

- Informazioa:

e-posta: [aisialdia@elgoibarhoizarra.eus](mailto:aisialdia@elgoibarhoizarra.eus)

Telefonoa: 943 741 626

- Epea: **otsailaren 21a** 4ra arte.

- Prezioa:

- Egun bakaitza 8€ el dia (bozkideek 7,5€).

Hiru egunak 22€ (bozkideek 20€).

2095 5036 58 1070736292 (Kutxabank)

3035 0007 23 0070065514 (Laborala)

\*Kontzeptua: haurraren izen-abizenak.

- Goiz Txoko zerbitzua (7:30-9:00 bitarteko zaintza) behar izanez gero, izena ematerakoan adierazi.



Antolatzailea

ATXUTXIAMAIRA



## Croqueta y Presumida

**INAUGURAZIOA Otsailaren 5ean**

**19:00retan Landa Harategian**

San Franzisko 23, Elgoibar

Hurbildu krocketak eta cava dastatzera!

Tel. 943 74 27 58

[www.croquetaypresumida.com](http://www.croquetaypresumida.com)



Facebook



Twitter



Instagram





Ainhoa  
Lendinez

Kaixo, Iñi! Badakit eskiekin gora eta behera zabiltzala mendian, baina korrikaldia proposatu nahi dizut gaur; Bilborainokoa, Errekalde auzorainokoa.

Orain hiru urte pasatxo, halabeharrez aritu nintzen han korrika. 2011ko irailaren 21a zen, ostirala. Urtebete eskas neraman kazetari lanetan telebistan.

### “Susmoa daukat formula zaharrak, zaharregiak, erabiltzen direla oraindik askotan”

Gogoan daukat arropa deserosoa neramala korrika egiteko, soinekoa zela uste dut, eta ez bereziki mendirako modan dauden horietakoa. Errekalde auzora bidali ninduten, Kukutza gaztetxea husten hasi zelako Polizia. Astebete lehenago egona nintzen hango gazteekin grabatzen. Kultur proiektu aske bat aurkeztu zidaten, liburutegi, sukaldaritzatailer, antzerki, taberna eta abarrez hornitua. Eraikinak jabe pribatua zeukala argudiatuta aterarazi zituzten handik. Udalak eremua erosi eta gazteei uzteko eskatzen zuten askok. Konponbide erraza zirudien, baina ez. Arratsalde hartan korrika egin nuen Errekalden, kazetari txartela eskuan, polizia pilotakadei ihesi. Usurpazio delitua leporatuta, joan den asteazkenean hasi zen 23 gazteren aurkako epaiketa.

Eraikinik ez badago, beharrezkoa al da orain, hiru urte era erdi geroago, gazteok epaitzea? Halako oldarraldia saihestu eta ez ote zen errazagoa Udalak bitartekari lana egitea gazteen eta Kukutzako jabeen artean?

Arrazoia nork daukan epaitzen hasi gabe, garaiak aldatu direla dioten arren, susmoa daukat formula zaharrak, zaharregiak, erabiltzen direla oraindik askotan.



Iñigo  
Lariz

Gogoan dut, bai, korrikaldi hura, ez bertan egon nintzelako, zuen erreportajea telebistan ikusi nuelako baizik. Manifestaldi jendetsuak izan ziren kultur gunen itxieraren aurka, eta Kukutzan inoiz egon gabe izan arren, hango berri izan genuen guztiok horren ondorioz. Bertako kultur proiektua zabala eta benetan anitza zela iruditzen zait.

Errekalde eta Bilboko gazte jendea bildu eta elkarlanean eta autogestioan ekintza mordoxka aurrera eramatea helburu zuen. Baina batzuen, beti bezala agintean daudenen gustukoa ez zenez, gizarte mugimendu hori mozteko erabakia hartu zen, indarra erabiliaz gainera. Beste askotan bezala, norbanakoa eta helburu ekonomikoak gizartearen eskakizunen aurretik jarritz.

### “Askotan bezala, helburu ekonomikoak gizartearen eskakizunen aurretik jarritz”

Lurzoru eta eraikin haren jabeak bertan etxebizitza berriak eraikitzeke asmoa erakutsi omen zuen, gizarte honen ekonomia burbuila puztu izan duen arrazoia hain zuzen ere. Hara, zer kasualitatea ezta?

Baina gaur da eguna enpresa horrek han ezer egiteko asmorik ez duela adierazi duena. Beraz, gizarte mugimendu maitatsu hura indarrez moztua izatearen ondorio bakararra auzoari kalte egitea izan da.



## ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko erretratu zaharrak baldin badituzu, eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) helbidera bidaltzea. Nafarroa Plaza 2, behe. 943 744 112 (Ainhoa)

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Webgunea: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA  
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO  
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika  
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea  
Osoro KOLABORATZAILEAK Noemi Otegi,  
Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes  
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa  
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,  
Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel  
Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane  
Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu  
Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA  
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## ARGITARATZAILEAK:



ELGOIBARKO IZARRA  
Eskutitzailearen Tokiagunea

## LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar  
biZi-biZiKa!



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## ■ GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Eskerrik asko

Eskerrik asko antolakuntzakooi, eskerrik asko, zuri, Zigor, eskerrik asko Elgoibarko Udalari, eskerrik asko elgoibartarrei, eta batez ere, eskerrik asko igandean Mintxetara gerturatu zinetenoi eta animoak eman zenizkidaten guztioi.

2015. urteko Mugertza Krosa berezia izan da, eta berezi egiten hori denon artean lortu duzue.

Datorren urtera arte!

**Maite Maiora** ☺

### 2015eko Nazioarteko Juan Muguerza

#### Krosaren antolatzaileek, esker onez

Idatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXXII. edizioa antolatu duen Mintxeta A.T. batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen 2015ko urtarrilaren 25ean egin zen krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzeko orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krosaren parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena astebetetz mundu osoko kirolaren erakuslehoan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Krosa herriarena da, eta herriak aurrerantzean ere maiteko duela espero dugu. Edizio honetan Euskadiko krosik onena izan gara berriro ere; eta antolaketari eta kirol arloari dagokionean, estatuko hoberenatarikoa. Nazioartean ere ikusi dute gure krosa desberdina dela.

Eskerrik asko baita ere komunikabideei, ikusleoi eta bereziki laguntzen egon diren hamamaka boluntarioei; handiak zarete!

Hortaz, lanean jarraituko dugu, datorren urtea ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2016ko urtarrilean. Mila esker.

**Mintxeta Atletismo Taldea** ☺

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaz:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datorren eskutitzik argitaratuko.



Txankakoako autobus geltokitik Urazandira doan oinezkoentzako bidea oso arriskutsua da: "Elgoibartar askok egunero eguten dugu ibilbide hau, eta askotan gainera, seme-alabekin. Errepidean trafiko handia egoten da, eta oinezkoren baten estropezu txikiak ere, sekulako ezbeharrak eragin dezake. Ondo egongo litzateke baranda bat jartzea Pilar ikastetxea zegoen inguruetik autobus geltokiraino. Oinezkoen segurtasuna dago jokoan, eta garrantzitsua da hori bermatzea". Hirigintza Sailetik jakinarazi dute errepide nazionala Foru Aldundiaren kompetentzia dela. Udalak barandaren eskaera egin zuela gaineratu du, baina Aldundiak atzera bota zuen eskaera hori.



Pare bat aldiz irakurri dugu BARRENEN Pilar ikastetxeko aparkalekua egokitzeko asmoa duela Udalak, baina ez dute ezer egin oraindik: "Euria egiten duenean Pilar ikastetxeko aparkaleku erdia urez betetzen da. Aparkalekua berez ez da handia, eta erdia erabili ezinda geratzen da euria egiten duen egunetan. Harriak erortzen dira goiko aldetik, eta horma bera ere nahiko hondatuta dago. Aparkalekua egokituko zutela esan zuen Hirigintza Saileko arduradunak, baina oraindik ez dute ezer egin". Ricardo Garatek esan du kontuan hartuko duela eta begiratuko dutela berriro.



Elgoibar Ikastolak eskerrak eman nahi dizkie San Sebastian Eguna ospatzeko egur-oholak eta makilak laga zizkietenei: "Hilaren 20an, Elgoibar Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleek San Sebastian eguna ospatu zuten. Elgoibar Ikastolatik eskerrak eman nahi dizkiegu Elgoibarko Udalarri, Inazio Bereziartua musika-eskolari eta Haritz Dantzari Taldeari egur-oholak eta makilak lagatzeagatik".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) 943 744 112

**GOIMEK****ARTEZKETA LAUETAKO LANGILEA BEHAR DA**

Goimek zehaztasun handiko mekanizazio lanetan aditua den kooperatiba da. Mekanizazioarako intente osoak, kalitatea, doitasuna eta zerbitzua bermatzen dugu. Gure aktibitatea makina erraminta, aeronautika eta trenbide sektoreentzako doitasuneko pieza handien mekanizazioa bideratzen dugu.

**Funtzioak:**

- ① Artezketa laueterako makina handiak menperatzea.
- ① Doitasun handiko bukatze lanak menperatzea.

**Eskaintzen da:**

- ① Berehalako inkorporazioa.
- ① Esperientzia eta gaitasunen araberako soldata.

**Eskatzen da:**

- ① Titulazioa: Goi mailako heziketa zikiloko trebakuntza, "Produzio bidezko mekanizazioa".
- ① Eglaztapan tresnak (nibel elektronikoak, mikrometroak, etb) erabiltzeko ezagutzak izatea.
- ① Baloratuko da: Esperientzia zabala antezeko lanpostuetan.
- ① Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- ① Taldean lan egiteko gaitasuna.
- ① Ekimena.

**DANOBATGROUP**

Epea: Interesa dutenek, 2015 ko Otsailaren 13 a baino lehen, Giza Ballabideen Departamentura bidali dezake beraien Kurrikuluma. GM-01 erreferentzia. [ecarballo@goimek.com](mailto:ecarballo@goimek.com)



## Hobera egin arren, larri jarraitzen du joan zen barixakuan Eibarren izandako istripuan zauritutako IMHko ikasleak

Alberto Soto eta Eduardo Piñol IMHko ikasleak hil ziren ezbehar berean

**E**lgoibarko IMH institutuko bi ikasle hil ziren eta hirugarren bat larri zauritu joan zen barixakuan Eibarko sahiesbidean, 634 errepedean, gertatu zen errepede istripuan. Hiru ikasleak zihoazen autoak kamioi baten kontra jo zuen, eta ez-beharrak gertatu zen lekuan bertan hil ziren Alberto Soto Ezkurdia eta Eduardo Piñol Merino Ingeniaritza dualeko ikasleak, 23 urtekoak biak. Haien ikaskide Iker Jimenez Vidal donostiarrak zauri larriak izan zituen, eta Donostiako Ospitalera eraman zuten. Azken orduetan bere kasa arnasa hartzen hasi bada ere, oraindik egoera kritikoan jarraitzen du gazteak.

Istripuak "lur jota" utzi zuen IMHko familia, eta bertan behera laga zituzten egun horretako eskolak eta baita hurrengo egunerako antolatuta zituzten Informazio Saioa eta EHUren Donostiako campusean ematekoa zuten informazio hitzaldia ere. Prentsa ohar baten bidez, IMHko zuzendaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak do-



luminak agertu zizkieten hildakoen senitarteko, lagun, ikaskide eta hurbilekoei, eta istripuan zauritutako hirugarren ikaslea, Iker Jimenez Vidal donostiarra, ahalbait azkarren errekupeatzeko nahia agertu zuten.

### Zabalik da Imstersorekin bainuetxeetara joateko eskaerak egiteko epea

Imstersok, pertsona nagusientzako eta mendekotasun egoeran dauden banakoentzako prestazio osagarriak eskaintzeko Seguritate Sozialaren Entitate Kudeatzaileak, zabaldu du termalismo osasungarria programari dagokion laguntzak eskatzeko epea. Elgoibarko Ongizate Sailak jakinarazi duenez, interesatuek maiatzaren 18ra arteko epea dute eskaera orriak aurkezteko. Eskaera orriak Udalaren Ongizate Sailaren bulegoan edo Jubilatuen Etxean jaso ditzakete bete beharreko eskaera orriak.

### Epaiketa politikoaren kontra dozenaka lagun batu zituen Libre Egunak



Libre Eguna antolatu zuten zapatarako Elgoibarren, bultzada politiko hasitako epaiketarik salatu eta auzi ezberdinetan auzipetutako lagunek elkartasuna adierazteko, eta dozenaka lagun bildu zituen deialdiak. Egun osorako egitaraua antolatu zuten, baina nagusiki hiru ekitaldiren bueltan batu zen jendea. Talde argazkia atera zuten aurrena Kalegoen plazan, eta ondoren, elkarrekin bazkaldu zuten guztiak Leku Eder plazan jarritako karpan. Han, 28 gazteren kontrako auzian auzipetu zuten Aina Ladronek –kargurik gabe libre laga zuten– eta 04/08 auzian auzipetutako Joseba Zinkunegik hiru-lau hitz egin zituzten, eta gauean, kontzertuak izan ziren Gaztetxean.

## Garapena **Enpresentzako laguntzak**

Debegesa eskualdeko garapen agentziak jakitera eman duenez, Debabarrenako hemeretzi enpresa lagundu dituzte diruz 2014an, tartean Elgoibarko bost enpresa eta Mendaroko bat. Diru-laguntza jaso duten enpresek 32 lanpostu sortu dituzte eskualdean. Guztira, 120.000 euro banatu ditu hemeretzi enpresa horien artean, Debabarrena Ekinean Funtsa programaren baitan. Jasotako diru horri esker, Enpresa horiek ia 1,5 milioi euroko inbertsioa egingo dutela aurreikusten du Debegesak. Era berean, banatutako laguntzak enpresek egindako inbertsioak laguntzera zuzendu dituztela jakinarazi dute.

Diru-funts hau Gipuzkoako Foru Aldunditik dator osorik eta foru dekretu baten barruan kokatzen da, enplegua hobetze aldera proiektu estrategikoen garapena bultzatzera bideratuta dagoena. Hemeretzi enpresa horiei banatutako diru-laguntzei esker, 32 lanpostu berri sortu dira eskualdean.

## Datua **836 langabe**

Estatuko Enplegu Zerbitzuak emandako datuen arabera, Elgoibarren eta Mendaron 836 lagun daude lanik gabe: 729 Elgoibarren eta 107 Mendaron. Iazko datuekin alderatuta, gora egin du langabe kopuruak bi herrietan, eta bi kasuetan, emakumeen langabezia datua handiagoa da gizonezkoena baino. 392 dira lanik gabe dauden emakumeak Elgoibarren, eta 67, Mendaron. Adin tarteari dagokionez, 25 eta 44 urte artekoetan da kopurua handiena, eta hurrengo, 45 urtez gorakoetan.

## Lekua **Obrak**

Urazandi auzoa eta herrigunea batzen dituen King-Kong zubia berritzeko lanak hasiko ditu Elgoibarko Udalak astelehenean, otsailaren 2an. Zubiko bi zatitan dauden koskak kenduko dituzte, eta horretarako, bost bat egun beharko dituzte langileek, Ricardo Garatek Hirigintza zinegotziak jakinarazi duenez. Obrek irauten duten bitartean erabat itxita egongo da zubia. Zubiaren hasieran eta erdialdean dauden koskak kendu eta maila berean lagako dute zubiko zorua. 15.000 euroko aurrekontua dute lanok, eta Murgil erakuntza enpresak egingo ditu.

Era berean, Andonegi etxe ingurua urbanizatu eta King-kongeko autobus geltokirainoko bidea asfaltatzeko lanak martxo hasieran hasiko dituztela aurreratu du Ricardo Garatek. 30.000 euroko kostua izango dute lan horiek.



## **Santa Agedako kalejirak egingo dituzte eguaztenean**

Otsailaren 5ean da Santa Ageda eguna, eta tradizioari jarraituz, bezperan irtengo dira koplak kantuan herriko hainbat talde. Batetik, Elgoibarko Izarrako lagunak baserri-baserri irtengo dira santa eskean. 14:30ean batuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta Elgoibarko baserri auzoetan jardungo dute kantuan eta eskean. Gauean Aiastiako elkartean afalduko dute. Izena eman dutenek soilik hartu dezakete parte. Era berean, Elgoibar ikastolako umeak eta Mendaro ikastolakoak ere kalejiran irtengo dira, 15:30ean. Elgoibarkoek Ikastolatik Kalegoen plazara arteko bidea egingo dute eta euria egiten badu, ikastetxean bertan egingo dute kantaldia. Mendarokoek San Jose plazan abestuko dute.

## **Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren**

Elgoibarren gaur arratsaldean egingo dituzte odol ateratzeak, Odol Emaleek anbulategi ondoan duten lokalean. 18:30etik aurrera hasiko dira lanean, eta elkartekoek herritar guztiei dei egin diete, ohartaraziz odol premia handia dagoela.

## **Lourdesera irteera antolatu dute otsailaren 11rako**

Lourdesera irteera antolatu du Elgoibarko talde batek otsailaren 11rako. 6:30ean irtengo dira King Kongo autobus geltokitik eta interesatuek Karkizano dendan eman behar dute izena otsailaren 8rako. Irteeraren prezioa 40 eurokoa da, eta bidaiatzeko gain, bazkaria ere sartzen da prezioan.

## **Txankakuaren zozketako zenbaki irabazle batzuen jabeak ez dira agertu**

Txankakuako Gabonetako zozketan saridun irten ziren zenbaki batzuen jabeak ez dira agertu oraindik. Hauek dira agertu ez direnak: 30.117 (Ordezkoa:45.094), 84.383 (90.261), 04.608 (85.094), 23.733 (33.531), 67.199 (74.494), 90.464 (36.950).

# OPILARI GORAZARRE



**San Blas eguna da martitzenean, otsailaren 3an, eta horren aitzakian, Soraluzen azkeneko urteotako sanblas egile onena izendatu duten Maria Angeles Zabalorekin izan gara sukaldean. Ordubetea hasi eta bukatu ditu lanak.**

**Ainara Argoitia**

**E**zagun da Maria Angeles Zabala (Soraluze, 1955) non bizi den. Ate-tik kanpora dator San Blas opilaren anis usaina. “Zuek etorri aurretik, atzo egin nituen batzuk, probarako”, azaldu du. Probetan denbora galdu beharrik ez du, baina, azkeneko sei-zazpi urtean Soraluzen sanblas egile onena izendatu dutenak. Mantala jantzita eta mahukak jasota dator, opil-gintzarako prest. “Ea zuzenekoan zer moduz moldatzen naizen”, dio argazkilaritari keinu eginez. Sortzez “sanblasaren hiriburukoa” dela dio harro, eta Urramendiko izebari ikasitakoa duela errezeta. Beti atera ohi du mahai gainera, “badaezpada”, baina hari begiratu ere egin gabe ekin dio orea egiteari. “Ez begiratu horri e!”, kargu hartu dio kazetariari ere. “Hori sekretupekoa da”, bota du. Berehala aitortu du, hala ere, osagaietan ez dago-

ela sekretua. “Eskua eta labea dira hemen inportanteak. Esku kontuez ezin da ezer esan. Norberak duena du, eta listo, baina labeari eskua hartzea ez da beti erraza”. Tenporizadore zahartxo bat hartu du. “Gehienez ere bederatzi minutu behar ditu sanblasak labean, erre arintxoagoa goxoagoa delako [ordu erdi aurretik piztuta zuen labea, 180 gradutan]”.

Irina, bi arrautza gorringo, legami-zorro bi, 400 bat gramo azukre, bost bat arrautza, txerri-gantza eta anis-esentzia txorrostada on bat orea egiteko, eta bi arrautza zuringo eta glas azukrea gainera zuria egiteko. “*Al tun-tun* botatzen dut, eta zalantza izanez gero, apur bat gehiago beti. Batzuei ez zaie anisa gustatzen, baina anis-opilak dira sanblasak, eta oparo botatzen diot nik!. Jeneroa oparo bota zalea naiz. Gainera zuria egiteko

ere, bota Jeneroa sendo! Gainera kapa lausodun sanblasa baino opil eskasagorik ez dago”, dio anis-esentzia potetxoa eskuan hartuta.

Ikustekoa da sukaldean duen ganora. Atzera-aurrera bizkorrekoa da Maria Angeles. Oraintxe sanblas bati forma eman, oraintxe besteari atzaparrekin ertzak egin, labetik atera berriari gainera zuria eman, Maria bainuan urtzen jarri duen txokolateari begiratu bat... eta jarduna, etengabea. Badaki sanblasengatik baino ezagunagoa dela bera Elgoibarren inauterietan euren lagun koadrilak eman ohi duen ikuskizunagatik, eta mozorro kontuetara eraman gaitu bat-batean. “Azaroran egin genuen lehenengo batzarra, eta orain, josten hasiko gara”. Ez du jantziaren inguruan ezer argitu, hala ere. “Ez, ez. Hori sekretua da”.



# San Blas

## Etterako baino gehiago

San Blas eguna baino hamabost bat egun aurretik hasten da urtero opilgintzan, baina eguna bera pasata gero nekez egin ohi du besterik. “Ez zaigu komeni, potolotu egiten gara bestela-eta! Nazkatuta egon behar nuke honezkero, baina jatea ere ikaragarri gustatzen zait, batez ere gaineko zuria. Ematen bukatu eta segituan harraskara eraman, urez bete eta espartzuarekin garbitu bat ematen diot ontziari, bestela dena jan dezaket”. Etxean denek dute estimutan Maria Angelesen sanblasa, eta ez da harritzekoa jateari ezin eutsi izana. “Semeak esaten dit: ‘Ama ezin duzu txerri-gantzik eta azukrerik gabeko sanblasik egin?’”

Aspaldikoa du sanblasarekiko lotura berak. 16 bat hilabeteko zela, San Blas egunez opilak bedeinkatu ostean amaren besoetan egin zioten argazkia erakutsi du. Sanblasak egiten noiz hasi zen, hala ere, ez dauka go-goan, baina 20 bat urterekin izango zela dio, eta orain, etterako egiten dituela, gehienak inguruan banatzen baditu ere. “Iaz, Euskadi Gazteako Di-Da saiorea ere bidali nuen bat”,

aitortu du. Urte batean, baina, senarra langabezian egon zen sasoiari, saltzeko ere egin zuen. “60 bat kilo egingo nituen! Aitagarrebakideen dendan saltzen nituen, Mendaron. Etxera etortzen zitzaizkidan bila eta ni egin eta egin!. Eta garesti saltzen nituen e! Edozelakoekin konformatzen denak edonon eros ditzake merkeak!”. Higuindu ere egin zela aitortu du, arrautza-zuringoak jasotzen ari den bitartean. “Hauxe da zailena, edo gogaikarriena bai behintzat: zuringoa jasotzea. Hau ondo egiten asmatu ezean, gaina ez zaio gogortzen sanblasari. Egurrezko koilararekin zabaltzen dut gero. Txabolak [senarrak] brotxa bat erosteko esaten dit tarteka, baina zertarako, ni ondo moldatzen banaiz!”

Etxean anis usaina hartzeaz aspertuko zen beharbada, baina ez zion opilak egiteari laga. San Blas eguna “egun bedeinkatua” da zabalatarrean. “Geneetan darماغun zerbait da hau. Nire iloba batek ere oso onak egiten ditu, eta behin nire aurretik gelditu zen lehiaketan ere. Bera txapeldun eta ni txapeldunorde. San Blas eguna oso berezia da. Gure osaba bat erretzaile amo-

rratua zen, eta izebak haren zigarroekin bidualtzen gintuen elizara, bedeinkatzera. Karameloak, laranja... dena bedeinkatzen zen sasoi batean”.

Egutegian gorritz markatua du otsailaren 3a Maria Angelesek. Sorluzera joaten da urtero sanblasak bedeinkatzera, eta urtero talde-argazkia egin ostean, Txurrukan bazkaldu ohi dute lagunek. “Sinestunak, fedegabeak... egun horretan denak joaten dira elizara han, umeak hartuta. Eskolan ere jaieguna izaten dute. Kanpoko irakasle asko dago orain, eta iaz, eskola eguna izan zen otsailaren 3a, eta penagarria izan zen, tradizio handiko eguna delako Sorluzen, baina aurten jai da berriro. Pentsa zenbatekoa den tradizioa, san blas opilari gaina egiteko zuria ere eginda saltzen dutela frutadendan, marmitetan”. Aurtengo San Blas egunak, gainera, badu bereziagoa izateko beste osagai bat Maria Angelesentzat. Amona egin berri du alabak, eta herrira alabak eta biloba txikiak lagunduko dioten itxaropena du. “Umea dotore-dotore jantzi eta argazkia ateratzea polita litzateke, bai”.







# IKUSKIZUN MUNDIALA MINTXETAN

72 urte pasatu dira Mugertza krosa antolatzen hasi zirenetik, baina goia jo gabe jarraitzen du oraindik. IAAF kategoría eskuratuta munduko hamabi kros onenen artean sartu da eta beste marka batzuk ere ondu ditu aurtengo krosak, besteak beste, partehartzaile kopuruarena eta ikusleena. 6.000 lagun baino gehiago batu ziren joan den domekan Mintxetan, 700 atletatik gora lasterka ikusteko. Teklemariam Medhinek (Eritrea, 1989) irabazi zuen gizonezkoen lasterketa nagusia eta Mimi Belete (Bahrain, 1988) gailendu zen emakumezkoenean. Mintxeta Atletismo Taldeko 28 antxitxikarik hartu zuten parte maila desberdinetan eta Martin Hernandezek infantil kategorian lortu zuen garaipena nabarmendu behar da. Argazki gehiago ikusteko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)









Abenduan...

**JAIOAKOAK**



**Nora Campos Riaño**  
Abenduak 21  
Gorka eta Maite

**Rayan Ed-Dabbat**  
Abenduak 14  
Cherkaoui eta Fatima

**Julen Ramos Blanco**  
Abenduak 17  
Iker eta Leire

**Marcos Lorenzo Ruiz**  
Abenduak 18  
Emilio eta Maria Isabel

**Ziyad Fassis Badaouate**  
Abenduak 19  
Abderrahman eta Aziza

**Mohamed Ramdan Hmine**  
Abenduak 22  
Rachid eta Hafida

**Anartz Gomez Marcoida**  
Abenduak 23  
Ekaitz eta Aitziber

**Aimar Cuesta Martinez**  
Abenduak 23  
Carlos eta Sara

**Malen Egaña Calleja**  
Abenduak 1  
Arkaitez eta Aintzane

**HILDAKOAK**

Markos Egia Gabiola • 93 urte • Abenduak 1  
Joseba Fernandez Fernandez • 63 urte • Abenduak 8  
Francisca Rico Aguilar • 83 urte • Abenduak 12  
Pilar Aierdi Etxeberria • 89 urte • Abenduak 15  
Anjel Tejero Tejero • 77 urte • Abenduak 15  
Mila Arruti Artolazabal • 67 urte • Abenduak 22  
Maria del Carmen Perez Fernandez • 91 urte • Abenduak 26  
Isabel Linares Linares • 94 urte • Abenduak 28

**ETXEBERRIA**

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

**TANATORIOA**



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

**JOSE MARIA SALEGI ARAKISTAIN**



2015eko urtarrilaren 27an hil zen, 91 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ESKERTZA

**LUISA REMENTERIA BERISTAIN**



2015eko urtarrilaren 23an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





# ALBERTO SOTO EZKURDIA eta EDUARDO PIÑOL MERINO



IMH/EHUko kide eta  
ikasleok beti izango zaituztegu gogoan.

Elgoibarren, 2015eko urtarrilaren 30ean



I. URTEURRENA

## LUIS IZAGIRRE ARRIZABALAGA

*"Lizundia"*

2014ko urtarrilaren 29an hil zen, 69 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 31, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



IV. URTEURRENA

## FERNANDO AZPIAZU URIBETXE BERRIA

2011ko urtarrilaren 30ean hil zen.

*"Joan zinen gu hemen utzita  
baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko"*

Senideak



I. URTEURRENA

## IDOIA LAKA LIZASO

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela

*"Beti izango zaitugu gure bihotzetan"*

San Lazaroko lankideak



ESKERTZA

## FELISA LARIZ GARATE

*Jose Felix Martinez Legorbururen alarguna*

*Hil zara, baina biziko zara  
zu beti gure gogoan.  
Itxaropena dugu biltzeko  
berri zurekin zeruan.*

2015eko urtarrilaren 17an hil zen, 93 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



# ANGEL OIARBIDE

## GURE ESKU DAGO MUGIMENDUKO KIDEA

Otsailaren 6an, 'Jostunak, herritarren borondateak jositako istorio bat' dokumentala eskainiko du Gure Esku Dago herri-mugimendua Elgoibarren (Herriko Antzokia, 20:30). Ordu eta erdiko dokumentala da, Eriz Zapirainek eta Ion Telleriak landutakoa, eta Gure Esku Dago dinamikan parte hartu duten herritar anonimoei ematen die protagonismoa. Era berean, baina, erabakitze eskubidearen inguruko korapiloak ere azaltzen dituzte. Dokumentalaren harira, Angel Oiarbide Gure Esku Dago mugimenduko kidearekin (Beasain, 1974) izan da **BARREN**, orain artekoaren balorazioa egin eta aurrera begira jarri dituzten erronkak ezagutzeko.



## “Zubiak eraikitze garaia da, edonora goazela ere, elkarrekin joan beharko dugulako”

**‘Erabakia ehuntzen’ hartu duzu lelotzat. Jostunaren figura aukeratu duzue kanpainarako. Zer dela eta?**

Gure Esku Dago 2003ko ekainaren 8an sortu zenean ere jostunaren figura aipatu genuen, ikusten genuelako Eskoziatik zetozen haize demokratiko haiek gure gizartean eragin zezaten ezinbestekoa zitzaigula gizarteko ahalik eta pieza gehien jostea. Eta josi diogunean ari gara konplizidadeak sortzeaz, aurreiritziak gainditzeaz, zubiak eraikitzeaz, elkar ezagutzeko aukerak sortzeaz... Hori dena da jostunoi, herritarroi, egitea dagokiguna.

Zer zen gertatzen zitzaiguna? Bada, sinistuta geundela sentsibilitate ezberdinen artean ezinezkoa zela herri honetan elkarlana sustatzea. Barneratuta geneukan hori. Hori zen gailentzen zen pentsamendua eta pentsa ezazu jarrera horrekin zer etorkizun geneukan! Beste puntua zen ez genekiela, amankomuneko oinarri baten batzeko gai izanda ere, zer eragiteko gai izan gintezkeen. Horrelaxe geunden orain urte eta erdi, eta oinarri bat jartzeko premia zegoela ikusita, erronka bota genuen, hiru puntutakoa: herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu eta herritarren

garaia da. ‘Has gaitezen elkar ezagutzen’, pensatu genuen; has gaitezen gutxiengo horien gainean elkarlana sustatzen eta pausoak ematen. Eta, giza katerako egindako lanari esker, lortu genuen lokatzetik irtetea eta ikusi genuen gezurrak zirela barneratuta genituen hainbat kontu. Hau da, jabetu ginen gai gine-la sentsibilitate ezberdinekook amankomuneko oinarri baten bueltan batzeko eta pausoak ematen hasteko. Eta bigarrenik jabetu ginen guk uste baino eragiteko gaitasun handiagoa genuela elkarlana sustatuz gero. ‘Nola egingo dugu?’ galdetzetik ‘Nola ez dugu



# “‘Nola egingo dugu’ galdetzetik ‘Nola ez dugu ba egingo’ pentsatzera pasatu gara

egingo ba!’ esatera pasatu ginen.

**Ahots ugariz osatutako kontakizuna da Jostunak. Zer da nabarmendu nahi izan duzue-na?**

Herritar anonimoak direla gure protagonistak: jostunak. Euskal Herrian muga eta lubaki asko daude gainditu beharrekoak eta elkarlanaren bidez horiek josi eta gainditzeko dagoen beharra nabarmetzen du dokumentalak. Zati handi bat giza kateari eskainitakoa da, ekaineko erauntsi hark balio izan zuelako horren barneratuta geneuzkan beldurrak eta hasierako zalantza haiek uxatzeko.

**Ilusioa da beharbada dokumentalean gailentzen den sentimendua. Giza kateak izan zuen oihartzunaz harrituta eta hunkituta ageri da jendea. Non gaude orain?**

Giza kateak lagundu zigun beste perspektiba bat hartzen; balio izan zigun jabetzeko gure buruan gehiago sinistuz gero urrutira iritsi gintezkeela. Balio izan zigun, era berean, ardurak hartzeko ordua zela ikusteko. Aurrera begira, zer? Ba nik esango nizuke urtebetean egindako hau entsegu bat baino ez dela izan eta lan handia dugula egiteko oraindik, errezeloak gainditu eta konplizitateak sortzeko. Hori egiten jarraitu behar dugu, jende asko mobilizatu badugu ere, iniziatiba honen oihartzuna ez delako euskal herritar guztien-gana iritsi, ezinezkoa delako urtebetean hori lortzea, baina garbi dugu gure etorkizuna geure esku dagoela eta denok garela hemen protagonista. Irudikatu dugu zer nahi dugun, eta hori da hemen garrantzitsuena, behin hori irudikatuta hasi gaitzkeelako bidea diseinatzen. Eta hori iruditara eramanda, hautestontzi batekin irudikatu dugu etorkizuna, euskal herritarren hitza jasoko duen hautestontzi batekin. Hautestontzi horren estaldura herritar guztion borondateak josiz osatuko dugu, gure atxikimendu pertsonalak elkarri josiz.

**Konpromisoak eta ardurak hartzea aipatzen duzunean zertaz ari zara? Gure Esku Dago-ren lana lurra goldatzera mugatzen da edo beste zerbait ere baduzue buruan?**

Hasieratik esan genuen guri ez zegokigula herritarren nahia eta hitza alderdien estrategia politikoetan nola gauzatuko zen diseinatzea. Iruditzen zaigu hori ez dagokigula guri, horretarako baditugulako geuk geure boto bidez aukeratutako ordezkariak. Gu sortu gara herritarrei sinistarazteko protagonista direla. Iruditzen zaigu urte gehiegi eman ditu-

gula berez geure ardurak direnak gure ordezkarien gain jartzen, eta hori egiten duzunean, hasiera batean behintzat, bada karga bat gainetik kentzea, baina luzerako kaltegarria da, arriskua dagoelako norbere gaitasuna nora artekoa den ahazteko; zer egiteko gai garen ahazteko. Eta hori ahaztuz gero, hurrengo pausoa da fedea galtzea norbere buruarekiko, eta hori larria da oso, menpeko egiten zaituelako. Menpeko bihurtu gara, gure ordezkariengan utzi dugulako dena. Sarri esan dugu Euskal Herria ziklo berri baten dagoela, baina ziklo horren uhina ez da altxatzen hasi. Aurreko zikloa 50eko hamarkada bukaeran kokatzen dugu, eta ordukoak dira lehen kooperatibak, euskal kultura suspertzeko egindako ahaleginak eta hark emandako emaitzak... Uhin hark sortu zuen olatuaren aparra gaur arte iritsi zaigu, baina, gaur, errentetatik bizi gara. ‘Ikastolak sortu ditugu, kooperatibak ere baditugu’, esaten dugu, baina horiek orain dela 50 urte sortu genituen. Hau da: zer egiten ari gara gu gure eredu guri iritsi zaigun indar berarekin iritsi dadin hemendik 50 urtera?. Gure aurrekoek zeinen esku utzi zuten euren seme-alabentzako gustuko ez zuten hezkuntza-sistema aldatzea? Ordezkaritza politikoengan? Ez, ezta?. Ardura beraiek hartu zuten. Horixe da Gure Esku Dago-ren asmoa. Dinamika bat baino gehiago jarrera bat da Gure Esku Dago.

**Giza katearen harira, Eider Rodriguez idazleak honela dio: “Historikoa izan zen, baina izan dadila historikoa hemendik aurrerakoa”. Herrietako batzordeak bi febrearekin ari dira lanean: apirilaren 25a eta ekainaren 20a. Zer dator?**

Apirilaren 25a Ehuntze

Eguna deitu dugu. Ordura arte herriz herri eta auzoz auzo bildutako oihal zatiak, herritarren borondate eta nahiak, josi eta haien bueltan batzeko eguna izango da. Ekainaren 20a, berriz, urte guztian zehar herriz herri jositako oihal guzti horiek biltzeko eguna izango da. Bildutako material guzti horrekin hautestontzi handiak osatuko ditugu hiriburuetan. Gure asmoa da orain urte batzuk *Bai euskarari* kanpaina egin zuten antzeko zerbait egitea. Garai hartan ere, nola ez, elkarri purrustadaka genbiltzan herri honetan, baina zorionez, Kontseiluak eta euskalgintzak mahaian kolpe bat jo eta esan zuten: ‘Bai, ezberdinak gara, baina batzen gaituena gehiago da banatzen gaituena baino eta amankomunean dauzka-gun gauzetako bat euskara da’. Eta kanpaina hartan, Euskal Herriko bost estadioak bete genituen. Bada horixe egin nahi dugu orain: batu, edonora goazela ere elkarrekin joan beharko dugulako. Zubiak eraikitzeke unea da.

**Eta orain arte iritsi ez zaretenengana iristeko, tutorearen figura sortu duzue. Zer da tutorea?**

Inguruko jendea animatzeko sortu dugun figura da: tutorea izango da, adibidez, bere futbol taldekoak aldarrira batuko dituen pertsona edo enpresako lankideak bultzatuko dituen edo...

**Ba al duzue daturik honek hartu duen dimentsioa zenbaterainokoa den irudikatzen?**

Euskal Herriko 170 herritan sortu dira batzor-



deak, eta lanean ari dira denak, nor bere erritmora. Egia da datuak astero aldatzen zaizkigula eta zaila zaigula datu orokor bat ematea, baina urtarriletik hona dinamismo handia eta ilusio ikaragarria igarri dugu herrietan eta zalantzarik ez dugu ekainera bitarteko hilabete hauetan oihartzun handia hartuko duela honek, ekarpen ugari egiten ari zaizkigulako herrietatik eta denok dakigulako ilusioa kutsakorra dela.

**Zeu zara herri mugimendu honen aurpegietako bat. Gaur iritsi zareten lekuraino iritsiko zinetela pentsatu al zenuen noizbait?**

Motz gelditzen ari gara; guk buruan harago joatea dugu irudikatuta. Iniziatiba honek erakutsi digun zerbait da horma handienak ez ditugula 500-700 kilometrorra; harresi eta horma handienak geure buruan dauzkagu, gerora sor daitezkeen zailtasun horiek direla-eta, ez garaela ausartzen unean-uneko pausoak ematera. Gu, hasiera-hasieratik saiatu gara mugarik gabe pentsatzen; gezia gora bota, eta jaitsi behar badu, jaitsi dadila bere inertziak. Labur esanda: handira jokatu dugu beti. Sinistuta geunden eta gaude lehenago geneukan etorkizun hutsal hura baino hobea merezi dugula eta sinistuta gaude euskal herrian gai garaela elkar ulertzeko eta elkarrekin lan egiteko, hori izan baita herri gisa eutsi arazi diguna. Eta ondotxo dakigu edozein proiektu aurrera egiteko behar-beharrezkoa den gasolina ilusioa dela, hemen eta edonon.

**Zerk bete zaitu gehien?**

Jendea ilusioz dela ikusteak. Izugarria da 80 urtez gorako aiton-amonek eskerrak ematea. Ikaragarria da haiei aditzea ez zutela uste berriro ilusioa berreskuratuko zutenik. Gerra, gerra ondorenak, diktadura... azken batean iluntasuna besterik ikusi ez duen belaualdi batekoek ilusioa berreskuratu dutela esatea izugarria da. Lagun batek behin esan zidan *Gazta zati bat* dokumentalak erakutsi ziola bost ero gauza asko egiteko gai zirela, egiten ari ziren horretan benetan sinistuz gero. Eta zer ikusiko dugu orain *Jostunak*-en? Bada, milaka lagun batuz gero handia egiteko gai garaela. Aspaldi sentitu gabe geunden poza eta ilusioa sentitu dugula erakutsi dugu irudien bidez, eta hori da dokumental honen indarra. *Gazta zati bat* lanak eman zezakeen irudia da gai ustez oso korapilatsu batekin ari zirela bost ero haiek, baina *Jostunak* dokumentalak erakusten digu erabakitze eskubidea ez dela inondik inora gai korapilatsua;

ez dela gai alderdikoia edo abertzalea, baizik eta herritarren gaia dela, oinarri-oinarrizko kontua. Lokatzetan loituta geneukan gai hau eta ari gara garbitzen eta gizarteratzen, eta *Jostunak* oso material baliagarria da guzti horretaz jabetzeko.

**Esan duzue zuen helburua ez dela politikarien lekua hartzea, baina hauteskunde kanpaina hasia den honetan, igarri al duzue gerturaterik?.**

Erabakitze eskubidearen gaiak oihartzun handiagoa hartu du; hori egia da, baina horren harira gauza bat esango dizut. Giza kaitearen ondorenean jende askok galdetu zizun ia politikariek hartu ote zuten guk ustez horren garbi bidali genien mezua. Galdera horri egin zigutenei oker zebiltzala erantzun genien guk, mezua ez genielako alderdi politikoei bidali, herritarrei baizik. Noski, kontuan hartuta gure ordezkari politikoak herritarren nahiak entzuteko daudela, zalantzarik ez dugu gutxienez apuntatuko zutela gaia. Garbi daukagu herritarren artean guk nahi dugun jarrera hori gailentzen hasten bada, gure ordezkariak aintzat hartuko dutela gure eskaria. Begira, kontu bat: Eskoziak ari garaela, askotan honela esaten digute. "Bai, Eskozian lortu dute, David Cameron dutelako haiek Erresuma Batuan, baina hemen Raxoi daukagu eta denok dakigu nolakoa den...". Baina irakurketa hori hankamotz gelditzen da. Ordezkariei beharrean hango herritarrek duten jarrerari erreparatu beharko genioke, jarrera horren islada direlako ordezkariak. Eta hona etorrita, berdin. Geure buruari erreparatu behar diogu gehiago, eta ez horrenbeste ordezkari politikoei. Guk zer egiten dugu? Utopia dela esan izan digute askotan, baina ez da, eta hori ikusi dugu Katalunian. Gaur Katalunian dauden politikariak atzo zeudenak dira, baina gaur beste modutan ari dira jokatzeko, herritarrek horretara behartu dituztelako. Hori da gure helburua.

**Otsailaren 6an emango duzue 'Jostunak' dokumentala Elgoibarren. Zerbait esan nahiko zenieke gure irakurleei?**

Dokumentala ikustera joateko gonbidapena egingo nieke guztiei, azken batean gu guztion artean egindako lana delako, gure mezua indar handiagoz zabaltzeko elkarrekin osatu dugun lana.





# Gotzon Barandiaran larrabetzuarrak eskuratu du 'Gotzon Garate' beka

Elgoibarko euskarazko ondarea gizarteratuko du

**E**lgoibarko euskarazko ondarea gizarteratzeko egitasmoak edota euskarriak proposatzea izan da Gotzon Garate bekaren bigarren deialdiaren ikerketa esparrua, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko abenduaren 22an egindako bileran onartu zuen Gotzon Barandiaran larrabetzuarrari esleitzea. Aukeratutako lanaren izena *elgoibarreraz.eus* izan da, eta horren barruan Elgoibarko euskarazko ondarea (herriko toponimia, ahozko ondarea, berbeta, kronika zaharrak...) arloka sailkatzea izango da bere egitekoa, web-atari batean biltzea eta webgune guztiak elkarren artean lotzea, edukien arteko loturak eginez.

## Bekaren bigarren deialdia

Elgoibarko Udalak 2009an sortu zuen Gotzon Garate izeneko beka eus-



kara arloko ikerketa sustatu, eta aldi berean, idazle eta euskaltzale elgoibartarra omentzeko. Beka horren lehenengo deialdian Elgoibarko Toponimia landu zuten. Oraingo honetan, berriz, bekaren helburua Elgoibarko euskarazko ondarea gizarteratzeko egitasmoak edota euskarriak proposatzea izan da. Lau izan dira bekara aurkeztutako lanak, eta Gotzon Barandiaran Arteagak aurkeztutakoa izan da beka eskuratu duena. Gotzon

Barandiaran larrabetzuarra, euskal idazle eta kulturilea da, Euskal Filologian lizentziatua (Gotzon Garate bera izan zuen irakasle Deustuko Unibertsitatean), euskara teknikari lanetan aritutakoa da, eta euskararen eta euskal kulturaren ondarea berreskuratzen, digitalizatzen eta hedatzen eskarmentu handikoa.

Beka honek 12.000 euroko ordainsaria izango du eta bekadunak hamalau hilabete izango ditu lana bukatzeko.

## Otsailaren 2an zabalduko dute Atxutxiamaikaren inauterietako txokoetan izena emateko epea



Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak inauterietako txokoak antolatuta ditu, otsailaren 16tik 18ra bitarteko. 9:00etatik 13:00etara batuko dira elizako arkupeetan, eta neguko oporraldiaz gozatzeko aukera eskainiko diete HH2tik LH2ra arteko umeei. Interesatuak otsailaren 2tik 6ra arte izango dute izena emateko aukera. Eguneko 8 euro ordaindu behar dira (Elgoibarko Izarrako bazkideek 7,5€). Hiru egunetan izena ematen dutenek, 22 euro ordainduko dituzte (bazkideek, 20€). Izena emateko elkarteak Ubitarten duen bulegora joan daiteke, edo [aisialdia@elgoibarkoizarra.eus](mailto:aisialdia@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzi. Informazio gehiago, 943 741 626 telefonoan.

### Etxegiña taldearen entseguak datorren astean

Etxegiña taldekoek santa eskean irteteko entseguak egingo dituzte datorren astean: Otsailaren 3an (asteartea) eta otsailak 5ean (osteguna) izango dira entseguak Kultur Etxeko Sotoan, 20:00etan. Taldekoek jakinarazi dute edonork hartu dezakeela parte Etxegiñaren santa eskean. Otsailaren 7an irtengo dira santa eskean kale-zeharkatuko dituzte kantuan. Errosario kaleko Ama Birjinari salbea abestu ondoren bukatuko dute eskea, eta Baltasar elkartearen egingo dute bazkaria.

## Bankoa kadete mutilen taldeak irabazi du Gipuzkoako eskubaloi txapelketa

Igoera fasea jokatu dute asteburuan Elgoibarren



**S**anloko kadete mutilen Bankoa taldeak 38-29 irabazi zuen joan den asteburuan Usurbilen kontra, eta emaitza horri esker, Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten. Asteburu honetan igoera fasea jokatu dute Elgoibarko Olaizaga kiroldegian, Bidasoa, Saieko eta Urdaibai taldeen kontra. Gaur hasiko dira partidak, eta Bankoak 19:15ean jokatu du. Bihar 11:00etan hasiko dira partidak, eta Bankoak 12:30ean jokatu du. Finala domekan izango da, 13:00etan.

### Kadete neskek lehen postuan

Euskal Ligari dagokionean, lehen fasea amaitu da kadete eta jubeniletan. Kadeteek lehen postuan amaitu dute fasea, eta jubenilek zazpigarren postuan. Saillapen horiei esker, datorren urtean ere euskal ligan jarraituko dute. Lehen fase hau amaituta, hemendik aurrera Aldundiko Garaikurra txapelketa jokatu dute. Bestalde, Ikus infantil nesken taldeak partida guztiak irabazi ditu lehen fasean.

### Mekatar-Iriondo xake txapelketa final-zortzirenetan da

Elgoibar Xake Taldeak antolatuta, Mekatar-Iriondo txapelketako hirugarren edizioa jokatu dihardute eta dagoneko bukatu da lehenengo fasea. Txapelketa final zortzirenetan sartu da aste honetan. Zortzi bikotek jokatu dituzte partidak, eta lehia bakoitzeko irabazleek final-laurdenak jokatu dituzte.

Junior mailan, bestalde, Haritz Iriondok eta Markel Kerretak jokatu dute finala.



**Haurreskolak**

www.haurreskolak.net

**Matrikulazio epea zabalik**

**Elgoibarko Haurreskola**  
943 742 141

**GUSTATZEN JATA, JAKU**  
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



# Euskal eskola publikoaren jaiko spot-a eman zuten zapatuan Anoetan

Herri Eskolako umeak jokalariekin irten ziren berdegunera



**R**ealak eta Eibarrek derbia jokatu zuten zapatuan Anoetan, eta Herri Eskolako eta Kalamua guraso elkarteko lagunek euskal eskola publikoaren jaia ezagutzera emateko baliatu zuten partida. Realeko jokalariek eta Elgoibarko Herri Eskolako umeak eskutik oratuta sartu ziren Anoetako berdegunera, eta Jairako prestatu duten iragarkia estreinatu zuten atsedendian, Anoetako pantaila erraldoian. Bi taldeek, Realak zein Eibarrek, erakutsi diote babesa ekainaren 7an Elgoibarren ospatuko den Euskal Eskola Publikoaren Jaia. Elgoibarko Herri Eskolako eta Kalamua Guraso Elkarteko kideei plaza egokia begitandu zitzaion derbia, Elgoibarren ospatuko den jaia gipuzkoarren artean ezagutzera emateko. Iragarkia ikusgai duzue [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean.

## Zartako arkulariek lehen eta bigarren postuak eskuratu dituzte Ordiziako txapelketan



Joan zen asteburuan San Sebastian arku tiraketa txapelketa jokatu zuten Ordizian, eta Zarta taldeko arkulariak fin aritu ziren: Jose Luis Garcia jantzi zuen txapela bere kategorian, eta Asier Agirrek bigarren egin zuen berean.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi **4** – Usurbil **0** (Pref.)  
 Oiartzun **2** – Elgoibar **1** (Erreg.)  
 Elgoibar **5** – Zestoa **0** (Jub.)  
 Elgoibar **3** – Amaiak Bat **3** (Kad. A)  
 Elgoibar **4** – Urki **0** (Kad. B)  
 Antzuola **0** – Elgoibar **15** (Inf.)  
 Elgoibar **9** – Herrera **0** (Inf. Txiki)

### ESKU PILOTA

#### Debarroko Txapelketa

Legazpi **14** – Lagunak **22** (2. maila jub.)

#### Pala

Altzatarra **14** – Lagunak **25** (1. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Gasteizko Aurrera **4** – Concepto Elg. **6** (2B)

### ESKUBALOAIA

Gabaz Elg. **31** – Usurbil **19** (Sen. mut.)  
 Astigarraga Elg. **18** – Errotaberri **34** (Jub. nes.)  
 Tecnifuelle Elg. **18** – Errotaberri **13** (Kad. nes.)  
 Bankoa Elg. **38** – Usurbil **29** (Kad. mut.)  
 Bidasoa **32** – Deca Elg. **27** (Kad. mut.)  
 Comete Elg. **18** – San Roke Elg. **13** (Inf. nes.)  
 Pulpo **13** – Iku Elg. **36** (Inf. nes.)  
 Egia **26** – Murgil Elg. **13** (Inf. mut.)  
 Txarriduna Elg. **45** – Arrasate **13** (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 31

11:00 Elgoibar – Burumendi (Inf.)

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

#### Domeka, 1

12:30 Concepto Elg. – Colo Colo (2B)

### ESKU PILOTA

#### Barxakua, 30

20:00 Lagunak – Alde Zaharra (2. maila nag.)

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

#### Barxakua, 30

17:30 Bidasoa -Urdaibai (Kad. mut.)

19:15 Bankoa Elg. - Sayeko (Kad. mut.)

#### Zapatua, 31

9:30 San Roke Elg. – Eibar B (Inf. nes.)

11:00 Sayeko – Bidasoa (Kad. mut.)

12:30 Bankoa Elg. – Urdaibai (Kad. mut.)

16:00 Murgil Elg. – Pulpo (Inf. mut.)

17:45 Lauko Elg. – Beti Onak (Sen. nes.)

19:15 Alcorta Elg. – Trapagaran (Sen. mut.)

#### Domeka, 1

9:15 Urdaibai- Sayeko (Kad. mut.)

10:45 Bankoa Elg. - Bankoa (Kad. mut.)

13:00 Aurkakoa - Aurkakoa (Kad. mut.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ 654 304 337
- Emakumea eskaintzen da lanerako, orduka. Etxeak garbitzeko edo erropa plantxatzeko prest. ☎ 631 203 287
- Emakumea etxeak, portalak... garbitzeko prest. Esperientzia eta gomendioekin. ☎ 648 039 187
- Emakumea asteburuetan pertsona helduak zaintzeko prest, esperientzia eta gomendioekin. ☎ 608 820 954
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. ☎ 639 423 493 / 943 741 185
- Emakume arduratsua eskaintzen da lanerako. Garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzen egingo luke lan, interna ere bai. ☎ 631 705 406
- Emakume arduratsua eskaintzen da lanerako. Garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzen egingo luke lan, orduka. ☎ 632 454 417
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ 638 338 816
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonak zaintzeko. Ospitalean zein etxean. Ezinduak mugitzeko garabiak erabiltzen daki. Gaez ere bai. ☎ 600 005 160

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 631 534 125
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ 602 846 244
- Alemanerazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. ikasle truke eta azterketen prestaketa EOI. ☎ 670 793 312
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Garbiketa lanak, adinekoak edo umeak zaindu, zerbitzari lanak... ☎ 602 377 184
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Garbiketa lanak, adinekoak edo umeak zaindu, zerbitzari lanak... ☎ 632 767 696
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Orduka edo interna. ☎ 602 052 260
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Paperak legez ditut. ☎ 687 362 773
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ 943 748 899 / 685 724 861
- Emakumea, lan bila. Interna, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. ☎ 626 914 904
- Emakumea sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 636 882 838
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ 608 523 426

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, esperientzia handia daukat. ☎ 677 259 560
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ 688 901 667 / 943 530 908
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. ☎ 631 932 184
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia daukat. ☎ 606 354 982
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ 602 490 595
- Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko, umeak edo adinekoak zaintzen. Orduka lan egiteko ere prest. ☎ 631 746 668

ESKAITZA

- EGA azterketa prestatzeko klase partikularrak hartuko nituzke. ☎ 617 053 329

ETXEBIZITZAK

- Pisu edo baserri hutsa hartuko genuke mantentzearen, berritzearen eta gastu batzuk ordaintzearen truke. ☎ 678 155 803
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 602 378 498

- Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 639 423 493 / 943 741 185
- Etxebizitza txiki bat hartuko nuke alokairuan. Hilean 300 bat euro ordainduko nituzke. ☎ 631 275 541
- Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 608 523 426
- Etxea alokairuan hartuko nuke Elgoibarren. ☎ 677 259 560

BESTELAKOAK

- Mendiko bizikleta (BTT) automatikoa salgai. 800 euro inguruan salduko nuke. ☎ 685 526 586
- Lepokoa galdu nuen pasa den asteburuan Elgoibarren. Bihotz forma du, erdia zilar kolorekoa da eta beste erdia urre kolorekoa. Balio sentimental handia du. Konpentsazioa izango du lepokoa bueltatzeak. ☎ 616 816 826

OSPAKIZUNAK

- 1970ean jaiotako en bazkaria, martxoaren 14an, Sigma jatetxean. 55 euro sartu behar dira, kontu zenbaki honetan. Bankoa: 0138 0020 1100 10693802. ☎ 607 477 405 / 663 694 896



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



**Legez bananduta dagoen pertsona batekin eta haren seme batekin bizi naiz etxe berean. Etxe bat erosi nahiko genuke, baina ez erdibana, baizik eta bakoitzaren baliabide ekonomikoan arabarako portziotan. Zertan eragin dezake horrek noizbait bananduko bagina edo elkarrekin seme-alabaren bat izan eta ni hilko banintz, adibidez? Zer eragin izango luke biona ez den seme-alabaren bat tarteko ezkontzea erabakiko bagenu?**

Ezkonduta ez zaudetenez, ez duzue zuen arteko oinordetza-eskubiderik, nahiz eta aukera daukazuen bata bestea izendatzeko oinordeko edo elkarri zenbait jabetza uzteko, baita dagokizuen etxe-zatia ere. Hori suposatuz legeria komunak eragiten dizue. Orain zehaztu duzun egoera horretan hilko bazina, testamentuan zehaztu dituzun pertsonak izango lirateke zure oinordeko (legezko oinordekoek eskubidea izan dezaketen arren), eta testamenturik eginda ez bazenu, zure legezko oinordekoak. Ezkonduko bazinate, baina seme-alabarik izango ez bazenute, zure emaztea izango litzateke legezko oinordekoa, testamentuan beste inor izendatu ez baduzu oinordeko, beti ere zure gurasoak bizi ez badira. Gurasoak bizi badira, herentziaren erdiaren gozamina izango lukete bizi diren artean eta herena gainerako kasuetan. Ezkondu eta seme-alabarik izaten baduzue, seme-alaba horiek izango dira legez zure oinordekoak, beti ere testamentuan inor zehaztu ez bada. Kasu horretan legeak zehazten duen seniparte-eskubidea errespetatu beharko litzateke. Dena den, zure bikotekideak herentziaren heren baten gozamen eskubidea izango luke.

**AHOLKUA: Zure erregimen ekonomikoa irabazpidezkoa bada, aukera izango duzue ondasun ezberdinak irabazpidezko ondasunen sozietatean sartzeko.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749








• Igarri orduko egin zara handi! Bihar, 2 urte-txo! Zorionak, **June**, etxekoen, lagunen eta bereziki neba Enaitzen partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Ian**, 4 urte haundi bete dituzulako. Familiako danen partez, muxu haundi bat eta ondo-ondo pasatu zure eguna.



• Zorionak, **Garazi**, 4 urte bete dituzulako. Lau muxu, etxekoen eta bereziki ahizpa Maddi, eta lehengusu Beñat, Malen, Denis eta Nahiaren partez.



• Zorionak, **super Ego!** Ondo pasa eta lau partxo handi, bereziki Gari ren eta familiako guztien partez.




• Zorionak, **Aimar Blanco Gantxegi**, gure pototo, bihar urte bat egingo duzulako. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Laia**, hilaren 29an 3 urte bete zenituelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure seigarren urtebetetzean. Etxeko abeslari alaienari, mila kilo muxu, etxekoen partez.



• Zorionak, **Urko**, urtarilaren 27an 14 urte egingo dituzulako. Zure arreba Izaroren, gurasoen eta familiako gainerakoen partez.




• Zorionak gure sorgintxo **Laiari** igandean 4 urte potolo bete zituelako. Etxekoen eta bereziki Eneko txikiaren partez. Paaaaa!




• Gaur zure urtebetetzea delako, mila zorion, **Markel**, familiakoen eta bereziki Nora eta Rokeren partez.



• Zorionak, **Bittor**, gure pailazotxo txikia, igandean 2 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta amamen partez.




• Zorionak **Elur eta Uxueri**, familiakoen partez.



Otsailaren 3an sanblasak egingo ditugu sukaldaritza tailerlean eta hilaren 4an, Santa Ageda eguneko kopia txapelketa.

Otsailaren 14an inauterietako makillaje tailerra egingo dugu. Hartu zure txanda, eta etorri zure mozorroa osatzera.



## BARREN astekarirako KOMERTZIALA BEHAR DA

### ESKANTZEN DA

- Ordezkapen bat egiteko lan kontratua.

### ESKATZEN DA

- Euskara maila ona: ahoz eta idatziz.
- Lan taldean lan egiteko gaitasuna.
- Salmentarako eta jendaurrean lan egiteko doaiak.

### BALORATUKO DA

- Elgoibar edo ingurukoa izatea.
- Marketing ikasketak izatea.
- Autoa izatea eta ordutegi malgua.

Interesatuak bidali curriculumak otsailaren 6rako, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Informazio gehiagorako: ( 943 744 112, Ainhoa)

## 4 eguztana

### Santa eskea

14:30 Baserriz-baserri

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Elgoibarko baserriak koplaturatu dituzte. Kalegoen plazatik abiatuko dira, bi taldetan. Izena eman dutenek soilik hartu ahal izango dute parte.

### Santa eskea

15:30 Ikastolako kalejira

Ikastolatik Kalegoen plazara egingo dute kalejira. Euria egiten badu, ikastolan bertan.

## 6 barixakua

### Dokumentala

20:30 'Jostunak'

Gure Esku Dago mugimenduak antolatuta, Herriko Antzokian.

### Erakusketa

18:30 Eskultura

Jose Luis Lasaren kultur erakusketa jarriko dute ikusgai hilaren 21era arte. Kultur Etxean.

## BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
30 Barrenetxea 31 Ibañez 1 Ibañez 2 Garitaonandia 3 Fernandez 4 Fernandez 5 Yudego 6 Oruesagasti	Astelehenetik igandera  Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Oruesagasti** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA  
(HERRIKO  
ANTZOKIAN)



### «Jimmy's hall»

30, barixakua: 22:15  
31, zapatua: 19:00  
/ 22:15 (VOS)  
1, domeka: 19:00  
2, astelehena: 21:30

### «Yugo eta Lala»

1, domeka: 16:30

### «Carmina y amén»

5, eguztana: 21:30

 barren.eus

E-posta berriak ditugu:

BARREN astekaria: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

BARREN publizitatea: [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARREN webgunea: [barren.eus@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.eus@elgoibarkoizarra.eus)

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)





# Gremioen

# GIDA



## Arozteglak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

San Roke 10-A behea B  
☎ 647 463 436

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolln, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20



# Gremioen GIDA

# ikastolan

denok gara



elgoibar ikastola



[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)

[www.ikastola.eus](http://www.ikastola.eus)

aurre-matrikulazioa  
otsailaren 2tik 13ra

aurkezpen bilera irekia otsailaren 2an,  
arratsaldeko 7etan, Ikastolan



[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)



[www.ikastola.eus](http://www.ikastola.eus)



IKI-n heldutasun-erria  
IKASTOLA den ikastetxea